

# Kroazia eta Eslovenia independienteak

## Europako Komunitateak atzo onartu zituen ofizialki Europako bi estatu berriak

**E**uropak bi estatu berri ditu atzodanik. Europako Komunitateak eta komunitatetik kanpoko beste estatu europarrek Kroazia eta Esloveniaren independentzia onartu dute. Hemendik aurrera Jugoslaviar ez da gehiago hitzegino iraganen ez bada behintzat. Eslovenia kasik uztailetik aurrera independente zen. Kroaziak, ordea, 30.000 hildako utzi ditu atzean, bere ametsa gauzatu baino lehen.


### DONOSTIA

Kroaziako gerrak ez du ezertarako balio izan, serbiarrek okupaturako lurraldeak Estatu berri honenak bada behintzat, oraindik oso argi ez dagoen puntua. Izan ere, ekainaren 25ean beren independentzia aldarrikatu zutenetik, Kroaziak bere lurraldearen % 30 galdu du eta lurralde hori bertako serbiarren eta Armada Federalaren esku geratu da.

Europako Komunitateak bi errepublika jugoslaviar ohien onarpenerako baimena eman bezain laster hasi ziren atzo estatuak banan banan Eslovenia eta Kroaziaren independentzia onartzen. Bosniak eta Mazedoniak, EKri beren errekonozimendurako eskaera egin zioten beste bi errepublikek, ordea, EKren iritziz ez dituzte baldintzak betetzen onarpenerako.

### KONTSENTSUARI EUTSI DIOTE

Balkanetako bi estatu berriak ospakizunak prestatzen hasi dira eta Kroaziak hil honen amaierarako Nazio Batuen Erakundearen sartzeko eskaera egingo dio nazioarteko erakundeari. Zortzi hilabetez gerra gogorra bizi izan duen errepublikak ez zituen denak alde bere onarpenerako baina azken orduan sortu ziren dudek ez dute ekidin Kroazia Europako Komunitateak onartzea. EK-ko lehendakari-tza portugaldarrak atzo ezagutzera eman zuen komunikatuak baieztatu



✓ Zortzi hilabetez gerra gogorra bizi izan duen errepublikak ez zituen denak alde bere errekonozimendurako, baina azken orduan sortu ziren dudek ez dute ekidin EK-k Kroazia onartzea.

zuen «Hamabiek kontsentsuari eutsi egin diote, aditu eta hiriburu batzuek susmoak izan arren, Kroaziari dagokionean». Komunitateak erabaki zuen «iragan abenduaren 16an ezarritako baldintzenpean eta Jugoslaviari buruzko Arbitraia Komisionaren arabera, Eslovenia eta Kroaziaren onarpenera egitea».

Dagoeneko, Alemaniak, Belgikak, Erresuma Batuak, Danimarkak, Espainiak eta Frantziak erabaki hori aintzakotzat hartu eta Estatu independente modura onartu dituzte errepublika hauek. Beste kide komu-

nitarioek ere gauza bera egingo dutela iragarri zuten atzo datozen orduotan.

### ARBITRAIAREN 'BADINTER INFORMEA'

'Badinter informea' EK-k sorturiko Jugoslaviari buruzko Arbitraia Komisionak eginkoan ageri diren ondorioetan, ordea, objektzio bat ageri da kasu kroaziarraren Konstituzioan zenbait aldaketa egin beharko bait ditu, gutxiengo eta talde etnikoen eskubideei dagozkien puntuetan. Robert Badinter frantsesak gidatutako Arbitraia Ko-

misionak eritzen dio «Kroaziako agintariei dagokiela 1991ko abenduaren 4eko lege konstituzionalari eranskinak egitea, ez bait ditu joan den urriko akordioetan hitzartutako puntu guztiak betetzen». Erreserba hau kontutan harturik, Kroaziako errepublikak «onartua izateko baldintza guztiak betetzen ditu».

Milan Kucan eta Franjo Tudjman, Eslovenia eta Kroaziako lehendakariak bihurtu dira heroi berriak. Beren eskutik, bi errepublika hauek independentzia lortu dute. Bien helburua da Europako Komunitatean integratzea eta Mendebal Europako estatuekin harreman diplomatikoak eta sozioekonomikoak berehala hastea. Serbiak galdu egin du. Batasunari eusteko ahaleginetan, Milosevic lehendakariak Armada erabili du, Kroazia eta Esloveniari Jugoslavian segitzeko balio izan ez duena.

## Gobernu Federala: «Jugoslaviaren Subiranotasunaren bortxaketa da»

### BEOGRAD

Jugoslaviako Gobernu federalak Europako Komunitatearen kontrako salaketak egin zituen atzo Beograden, beraren iritziz estatu horren eskubide subiranoak bortxatu izanagatik, Kroazia eta Esloveniaren independentzien onarpenera. «Urrats hori Jugoslaviako eskubide subiranoen, Nazioarteko Eskubideen, Europako Komunitatearen beraren eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 713, 721 eta 724 erresoluzioen aurka doa» zioen atzo Gobernu federalak kaleratutako komunikatuak.

Gobernu jugoslaviarrek adierazi

### Banan banan

#### ALEMANIA

Alemaniako Gobernuak izan zen joan zen abenduan bi errepubliken independentzia onartuko zuela lehenik iragarri zuena. Alemaniak Europako Komunitateak urtarilaren 15ean Kroazia eta Eslovenia ez bazituen onartzen, berak bakarrik onartuko zituela adierazi zuen. Alemaniaren atzetik Ukraina, Lituania, Letonia, Estonia, San Marino eta Vatikanok bi errepublikak onartzeko erabakia hartu zuten.

#### ESPAINIA

Espainiak azken momentura arte itxaron du Kroazia eta Eslovenia onartzeko. Francisco Fernandez Ordoñez Atzerri ministroak dagoeneko Ministroen Kontseiluari baimena eskatu dio bi errepublikekin harreman diplomatikoak ezartzeko. Fernandez Ordoñezek Lisboan adierazi zuenez, Kroaziak gutxiengo serbiararen eskubideak errespetatuko dituela hitzeman du.

#### FRANTZIA

Frantziak ere epe guztiak agortu ditu Kroazia eta Eslovenia onartu baino lehen. Roland Dumas Atzerri ministroak «Frantzia bi errepublikak onartzeko gertu» dagoela adierazi zuen. Dena den, Jack Lang Gobernuko bozeramaleak azaldu zuenez, Frantziak ez du enbaxadorerik bidaliko Zagrebera kroaziarrek serbiarren eskubideak onartu arte.

#### ERRESUMA BATUA

Douglas Hurd Atzerri ministroak Erresuma Batuko Gobernuak Kroazia eta Eslovenia onartzeko erabakia hartu duela adierazi zuen. Britainiarrek, frantziarrek egin duten moduan, Kroaziarekin ez dituzte harremanik ezarriko Zagrebek gutxiengo eskubideak errespetatuko dituela

### Jugoslavia hil da

Eslovenia eta Kroaziaren independentzien onarpenera Europako Komunitateak eta nazioarteko erakundeek Estatu baten desagertzea onartu dute. II Mundu Gerra bukatu zenetik Europaren barnean ez zen Estatu berririk sortu, nahiz eta Estaturik gabeko nazio asko egon. Independentzia lortu zuten azken estatu europarrak Txekoslovakia, Hungaria, Albania -1918-, Irlanda -1938- eta Islandia -1944- izan ziren.

Jugoslavia, hegoaldeko eslaviarren Estatu batirako desagertu egin da, eta Europak mende hasieran zuen itxura hartzen ari da: Balkaneko estatu txikiak banaturik, Alemania bat eginik eta inoiz baino sendoago, Errusia independentea eta Siberiako inperioa bere menpean duela... Mapan aurkitu daitezkeen parekotasunez gain, nazioarteko politikari dagokionez, Balkanak berriro Europako eskualderik gatazkatsuen direla erakutsi dute.

Hil berria den Estatu II Mundu Gerra bukatu ondoren jaio zen. Bere barnean European inon aurkitu ez zitekeen herri, kultura eta erlijio nahasketa izugarria biltzen zuen: sei hizkuntza, hiru erlijio eta bi alfabetu ofizialak. Herri

ugari bizitzeaz gain, gutxiengoak oso nahasiak zeuden eta lurralde bakoitza norena zen erabakitzeak gerra berehala piztu zezakeen.

Hainbeste kontraesan zuen Estatu Josip Broz, Tito izenaz hobeto ezagutzen zen politikariak sortu eta berekin batera desagertu zen. Titok II Mundu Gerran nazien kontrako borroka Jugoslaviako herriak batzeko erabili zuen. Gerra bukatu zenean, berriz, Moskurekin zerikusirik ez zuen 'hirugarren bideko' sozialismoa bilakatu zen Jugoslaviaren batasuna gordeko zuen indarra.

Titoren eskutik Jugoslavia hogeitamabost urtez Estatu batua eta nazioartean zeresanik asko sortu zuena bilakatu zen. Jugoslaviak ez zuen bat egin ez soviatarrekin ezta estatubatuarrekin ere. Ez Alineatuen mugimenduen sortzaile zelarik, bloke politikoaren kontra azaldu zen Tito lehendakaria. Tito 1980. urtean hiltzean nazionalista serbiarrek, Slovan Milosevicek batez ere, Jugoslavia Serbia Handia bezala ikusi zuten eta gainontzeko errepublikak Beogradekin hausteko ordua heldu zela ulertu zuten.